



**1931ko Altzako udalbatza hautetsia aitortzeko ekitaldia**  
**Acto de reconocimiento a la corporación electa de 1931**

## Altza 1931-1937

<b>1. Sarrera</b>	<b>1. Introducción</b>
<b>1.1 Altza</b> <p>Altza Herriak, 1931n, baserriz zipriztindutako landagune zabala zuen. Industializazioak, ordea, gero eta lur gehiago hartzen ari zen portuaren eta errepide orokorraren inguruan, Molinao eta Buenavistatik Intxaurrendoraino.</p> <p>Urte haietan, biztanleria azkar hazi zen, 1920an 4.005 biztanle izatetik 1936an 6.281 izatera pasatuz, eta ondorioz, etxebizitza berrien beharra areagotuz.</p>	<b>1.1 Altza</b> <p>La Villa de Altza en 1931 contaba con un amplio término rural salpicado de caseríos que progresivamente iba cediendo terreno ante un empuje industrializador que giraba en torno al puerto y a la carretera general, desde Molinao y Buenavista hasta Intxaurreondo.</p> <p>La población creció rápidamente, pasando de los 4.005 habitantes en 1920 a 6.281 en 1936, y aumentando, en consecuencia, la necesidad de nuevas viviendas.</p>
<b>1.2 Aurrekariak</b> <p>Urte haietan, Europa eta mundua Gerren Arteko Garaian bete-betean murgilduta zeuden. 1920ko Hamarkada Zorionsuaren ondoren, 29ko Kraka eta Depresio Handia etorri ziren, eta hori guztia totalitarismoen gorakadaren eta demokrazia liberalen krisiaren erdian.</p> <p>Bitartean, Espainian, Primo de Riveraren diktadurak, Alfontso XIII.aren babesarekin, porrot egin zuen Estatuaren arazo politikoa eta ekonomiko larriak konpontzeko ahaleginean, eta bere amaierarekin, hasiera eman zion garai historiko berri bati.</p>	<b>1.2 Antecedentes</b> <p>En aquellos años, Europa y el mundo estaban inmersos en pleno periodo de entreguerras. A los felices años veinte les siguieron el Crac del 29 y la Gran Depresión, y, todo ello, en medio del ascenso de los totalitarismos y la crisis de las democracias liberales.</p> <p>Entretanto, en España, la dictadura de Primo de Rivera, respaldada por Alfonso XIII, fracasa en el intento de resolver los graves problemas políticos y económicos del estado, abriendo con su final las puertas a un nuevo tiempo histórico.</p>
<b>2. Ilusioak</b>	<b>2. Ilusiones</b>
<b>2.1 Udal hauteskundeak</b> <p>1931ko apirilaren 12an udal hauteskundeak egin ziren. Altzan 24 hautagai aurkeztu ziren 12 postutarako, eta parte-hartzea % 82koa izan zen. 6 independente, 4 nazionalista eta 2 errepublikar aukeratu zituzten.</p> <p>Hautagaitza monarkikoen porrotak hirigune nagusietan Errepublikaren aldarrikapena eragin zuen, ikuskizun eta festa giroan ospatu zena, Herrerako plazan bizitu zen bezala.</p> <p>Hilaren 17an, zinegotzi hautetsiek udal berria osatu zuten: Sasiain, Ayesta, Cardona, Iriarte, Casares, Iruretagoyena, Zurutuza, Tejada, Beretarbide, Atorrasagasti, Juanes, eta Landa.</p> <p>Jose Juanes Echeveste zuzeneko boto gehien jaso zituen zinegotzia aukeratu zuten udalbatza berriko alkate presidente.</p>	<b>2.1 Elecciones municipales</b> <p>El 12 de abril de 1931 se celebraron elecciones municipales. En Altza se presentaron 24 candidatos para 12 puestos y la participación alcanzó el 82%. Fueron elegidos 6 independientes, 4 nacionalistas y 2 republicanos.</p> <p>La derrota de las candidaturas monárquicas en los principales centros urbanos desencadenó la proclamación de la República, celebrada en un clima de espectáculo y fiesta, como el que tuvo lugar en la plaza de Herrera.</p> <p>El día 17, los concejales electos constituyeron el nuevo Ayuntamiento, formado por: Sasiain, Ayesta, Cardona, Iriarte, Casares, Iruretagoyena, Zurutuza, Tejada, Beretarbide, Atorrasagasti, Juanes, y Landa.</p> <p>Eligieron como alcalde presidente de la nueva corporación al concejal que más votos directos recibió, José Juanes Echeveste.</p>
<b>2.2 Elkarte politikoak</b> <p>1931n zehar, politikan parte hartzeko interesa hainbat erakunde politikoren inguruan artikulatuz joan zen. Horietako bik egoitza</p>	<b>2.2 Organizaciones políticas</b> <p>A lo largo de 1931 el interés por participar en política se fue articulando en torno a diferentes organizaciones políticas.</p>

<p>sozialak inauguratu zituzten.</p> <p>Centro Republicanoa Herrerako Azpiroz-enea etxean zabaldu zuten. Udal eta politika jardueren jarraipen zehatza egiteko biltoki bezala erabiltzen zen, baita bertan hitzaldi politikoak eta ospakizunak antolatzeko. 1933an 80 afiliatu inguru zituen.</p> <p>EAJK, lehenik, Euzko Gaztedi Batzokia inauguratu zuen Altzagainan, Aizpurutxo etxean, eta, urte bat geroago, beste bat Herreran, Euzko Etxea, Ibarbia etxean. Batzokietan abertzaletasuna eta euskara sustatzeko ekintza kulturalak antolatzen ziren, hitzaldiak, euskal dantzak eta euskarazko antzerkia, batez ere. Bi batzokien artean 180 bat afiliatu zeuden.</p> <p>Altzatar anarkistek, komunistek eta ezkerreko beste talde batzuetakoek, jarraitzaile kopuru txikiagoarekin, Antxon eta Trintxerpen finkatutako taldeetan parte hartzen zuten.</p> <p>Karlistek eta falangistek ez zuten presentzia antolaturik izan matxinatuak sartu ziren arte, Gerra Zibila hasi eta bi hilabetera.</p>	<p>Dos de ellas inauguraron sus respectivas sedes sociales:</p> <p>El Centro Republicano en la casa Azpiroz-enea de Herrera, organizando charlas políticas, celebraciones, y como lugar desde donde hacer un seguimiento puntual de la actividad municipal y política. En 1933 contaba con unos 80 afiliados.</p> <p>El PNV inauguró primero el batzoki Euzko Gaztedi en el casco, en la casa Aizpurutxo, y un año más tarde otro en Herrera, Euzko Etxea, en la casa Ibarbia. Se organizaban actividades culturales de un marcado carácter abertzale y de promoción del euskara, conferencias, bailes vascos y teatro en euskara, principalmente. Entre los dos batzokis sumaban unos 180 afiliados.</p> <p>Los altzataras anarquistas, comunistas y de otros grupos de izquierda, con un menor número de seguidores, participaban en las agrupaciones asentadas en Antxo y Trintxerpe.</p> <p>Los carlistas y falangistas no contaron con una presencia organizada hasta la entrada de los sublevados, dos meses después de iniciada la Guerra Civil.</p>
<p><b>2.3 Emakumeak</b></p> <p>II. Errepublikak emakumeak gizartean duen zereginaren aldaketa sakona jarri zuen abian, eta parte hartzeko ateak ireki zituen, ahots propioarekin eta berdintasunean.</p> <p>1931ko abenduaren 9ko Konstituzioak emakumeen botoa eta dibortzioa onartu zituen. Centro Republicanoak egindako adierazpen publiko baten bidez goratu zuen. "<i>La República en Alza. A la mujer</i>".</p> <p>Emakume Abertzale Batzak, EAJren emakumeen erakundeak, berrantolatu eta zuzendaritza batzordea izendatu zuen. Ehun bazkide baino gehiago zituen.</p> <p>Berdintasuna konkistatzeko bidean, bost miliziana altzatar izan ziren protagonista, Trintxerpeko CNTren lerroetan kokatuak, gerraren hasieran, Pikoketako frontera, matxinatuen aurrerabidea armekin geldiaraztera abiatu zirenean.</p>	<p><b>2.3 Las mujeres</b></p> <p>La II República puso en marcha un cambio profundo del papel de la mujer en la sociedad, abriéndoles las puertas a la participación con voz propia y en igualdad.</p> <p>La Constitución del 9 de diciembre de 1931 reconoció el voto femenino y el divorcio, celebrado por el Centro Republicano con una declaración pública, "<i>La República en Alza. A la mujer</i>".</p> <p>Emakume Abertzale Batza, organización femenina del PNV se reorganiza y nombra su junta directiva. Cuenta con más de cien socias.</p> <p>Un episodio más en el camino por conquistar la igualdad fue protagonizado por cinco milicianas altzataras, cuando, encuadradas en las filas de la CNT de Trintxerpe, partieron en los inicios de la guerra al frente de Pikoketa a frenar con las armas el avance de los sublevados.</p>
<p><b>2.4 Gizartea</b></p> <p>Altzako elkarte-bizitza nahiko handia zen Errepublika baino lehen, baina, giro berriarekin, herri-ekimenak ugaritu egin ziren, bai elkarteak bai partikularrenak.</p> <p>Auzoetako jai programak indartu ziren...</p> <p>Kirol jardueren antolakuntza eta partaidetza hazi egin zen, hala nola, krosa, pilota, boloak... Txingurriko bola-lehiaketan, adibidez, 1930ean 26 bikote izatetik 1934an 64ra igaro zen.</p> <p>Herritarrek hala eskatuta, Udalak omenaldi batzuk antolatu zituen, Leandro Aizpurua hiriko mediku titularrari 1931ko abuztuaren 2an eskaini ziona bezalakoak.</p> <p>Garrantzi berezia izan zuen Jolastokietan, 1933ko uztailaren 18an, hilabete lehenago izandako uholdeen biktimei elkartasuna adierazteko eta kalteei aurre egiteko dirua biltzeko antolatutako</p>	<p><b>2.4 La sociedad</b></p> <p>La vida asociativa en Altza ya era considerable antes de la República, pero, con los nuevos aires, se multiplicaron las iniciativas populares, tanto de asociaciones como de particulares.</p> <p>Se reforzaron los programas festivos de los barrios...</p> <p>Creció la organización y la participación en actividades deportivas, como cross, pelota, bolos... En Txingurri, por ejemplo, el concurso de bolos pasó de 26 parejas en 1930 a 64 en 1934.</p> <p>A petición popular, el Ayuntamiento organizó homenajes como el que le dedicó al médico titular de la Villa, Leandro Aizpurua, el 2 de agosto de 1931.</p> <p>Una especial transcendencia tuvo el acontecimiento cultural</p>

<p>kultura- eta kirol-ekitaldiak. Jaialdiak gizarte sare altzatar osoaren inplikazioa eta babesa izan zuen.</p>	<p>y deportivo organizado en Jolastokieta, el 18 de julio de 1933, en solidaridad con las víctimas de las inundaciones producidas un mes antes y para recaudar fondos para afrontar los daños. El festival contó con la implicación y el respaldo de todo el tejido social altzatarra.</p>
<p><b>3. Udal jarduera</b></p>	<p><b>3. Actividad municipal</b></p>
<p><b>3.1 Obra publikoak</b></p>	<p><b>3.1 Obras públicas</b></p>
<p>Korporazioak aurre egin behar izan zion arazo larrienetako bat langileen langabezia eta prekariedade izan ziren. Langabeak kontratatzen zituzten herri-lanak egitea zen irtenbidea. Hori eskatzen zuten langabetuek, eta antzeko asmoarekin planteatu zuen Ayesta zinegotziak, aho batez onartu zen mozio baten bidez.</p> <p>Obra handiena Buenavistatik Sarruetara doan errepidea eraikitzea izan zen. Bi fasetan planteatu zen eta lehenengoa bakarrik egin ahal izan zen, Buenavistatik Kataliñenera, bigarrenaren exekuzioa Gerra Zibilak eten zuen bitartean.</p> <p>Beste obra garrantzitsu batzuk izan ziren ur-hornidura handitzea eta hobetzea, Putzuetatik Intxaurrendora urak ekarri, eta Herrerako Norteko trenbidearen oinezkoentzako azpiko pasabidea eraikitzea, 1932an.</p> <p>Udalak akordio batzuk sustatu zituen harrobien jabeekin eta langabeen elkarrekin, obra publikoetarako harria ateratzeko.</p> <p>Gainera, langabeak ere kontratatzen ziren obra txikietarako, hala nola bideak, espaloiak, garbiketa eta baso-berritzeak konpontzeko.</p> <p>Kontratazioetan, lehentasuna ematen zitzaizkien herriko bizilagunei eta familiako gurasoak zirenei.</p> <p>Obra horiek guztiak finantzatzeko, Udalak udal zergak eta tasak zituen, bai eta ekarpen ofizialak ere, batez ere Aldundiarenak. Horiek nahikoak ez eta beharrezkoa zen Aurrezki Kutxa Probintzialari maileguak eskatzea edo jesapenak egitea udal-aurrekontuak orekatzeko, zorpetzea handituz.</p>	<p>Uno de los problemas más graves que tuvo que afrontar la corporación fue el del paro obrero y la precariedad. La solución pasaba por la realización de obras públicas que contrataran parados. Así lo exigían estos y en términos similares lo planteó el concejal Ayesta por medio de una moción que fue aprobada por unanimidad.</p> <p>La obra de mayor embergadura fue la construcción de la carretera de Buenavista a Sarrueta. Se planteó en dos fases y solo se pudo realizar la primera, de Buenavista a Kataliñene, mientras que la ejecución de la segunda se vio interrumpida por la Guerra Civil.</p> <p>Otras obras importantes fueron la ampliación y mejora del abastecimiento de agua, con la traída de aguas desde Putzueta a Intxaurrendona, y la construcción del paso inferior para peatones bajo las vías del ferrocarril del Norte en Herrera, que se llevó a cabo en 1932.</p> <p>Desde el Ayuntamiento se promovieron acuerdos con los propietarios de canteras y las agrupaciones de parados para la extracción de piedra destinada a las obras públicas.</p> <p>Además también se contraban desempleados para obras menores, como arreglo de caminos, aceras, limpieza, repoblaciones...</p> <p>En las contrataciones se daba prioridad a los residentes en la Villa y eran padres de familia.</p> <p>Para la financiación de todas esas obras, el Ayuntamiento contaba con los impuestos y tasas municipales y con las aportaciones oficiales, principalmente de la Diputación, viéndose en la necesidad de solicitar préstamos a la Caja de Ahorros Provincial o la emisión de empréstitos para equilibrar los presupuestos municipales, aumentando el endeudamiento.</p>
<p><b>3.2 Hezkuntza</b></p>	<p><b>3.2 Educación</b></p>
<p>Hezkuntza atalari dedikazio handia eskaini zioten eta desadostasunen iturria ere izan zen.</p> <p>Altzak Estatuko bi eskola publiko zituen, bata Altzagainan eta bestea Buenavistan, haurrak sexuaren arabera bereizita zeudela. Gero eta haur gehiago zegoenez, behin-behineko eskola berriak prestatu ziren Molinaon, Intxaurrendon, Herreran eta Sarruetan. Azken hau zen eskola misto bakarra.</p> <p>Zentro pribatuen artean, La Asunción nabarmentzen zen, Mirakruzen. 160 ikasleko ordainpeko eskola bat zuen eta beste bat doakoa, 180koa. Herreran lau eskola pribatu zeuden, eta horien artean San Luis La Salle ikastetxea nabarmentzen zen, 152 ikaslerekin.</p>	<p>La enseñanza fue objeto de mucha dedicación y motivo de desencuentros.</p> <p>Altza contaba con dos escuelas públicas del Estado, una en el casco y otra en Buenavista, con aulas diferenciadas por sexos. La creciente población escolar hizo que se habilitaran nuevas escuelas provisionales en Molinao, Intxaurrendon, Herrera y Sarrueta. Esta última era la única escuela mixta.</p> <p>Entre los centros privados, sobresalía La Asunción, en Miracruz. Tenía una escuela de pago con 160 alumnas y otra gratuita, con 180. En Herrera había cuatro escuelas privadas, entre las que destacaba el Colegio San Luis La Salle, con 152 alumnos</p>

<p>Horien guztien artean 1.146 ikasle zeuden, horietatik % 60 ikastetxe pribatuetan.</p> <p>Gainera, marrazketa eta solfeo eskola partikularrak diruz laguntzen ziren eskola-ordutegitik kanpo, baita helduentzako gaueko eskolak ere.</p> <p>Gutxiengo errepublikanoaren eta gainerako korporazioaren arteko desadostasunik handiena eskola publiko berri baten eraikuntzaren inguruan gertatu zen, Herrerako plazan, La Salleko eskolen aurrean. Korporazioak Molinaon eskola berria eraikitzea erabaki zuen, baina bi zinegotzi errepublikarrek, gobernadoreak zinegotzi hautetsiak kargugabetu ondoren eta ezkerreko batzorde kudeatzaile bat izendatzeaz baliatu zuten Herrerako proiektua idazteko, eta lurra eta Estatuaren laguntza finantzarioa lortzeko. Baina, gobernu aldatzarekin, zinegotzi hautetsi guztiak birgaitu ziren eta hauek Herrerakoa gelditu zuten, Molinaoko proiektuarekin jarraitzeko.</p>	<p>Entre todas ellas atendían a una población escolar de 1.146 niñas y niños, un 60% de ellos en centros privados.</p> <p>Además, se subvencionaban clases particulares de dibujo y de solfeo fuera del horario escolar, así como clases nocturnas para adultos.</p> <p>El mayor desencuentro entre la minoría republicana y el resto de la corporación se produjo en torno a la construcción de una nueva escuela pública, en la plaza de Herrera, frente a las escuelas de La Salle. La corporación aprobó construir la nueva escuela en Molinao, pero los dos concejales republicanos aprovecharon la inhabilitación de la corporación electa decretada por el gobernador y la designación de una gestora de izquierdas para redactar el proyecto de Herrera, y conseguir el terreno y la ayuda financiera del Estado, pero con el cambio de gobierno, se rehabilitaron todos los concejales electos y estos lo pararon para continuar con el proyecto de Molinao.</p>
<p><b>4. Arazoak</b></p>	<p><b>4. Los problemas</b></p>
<p><b>4.1 Langabezia eta krisi ekonomikoa</b></p>	<p><b>4.1 El paro y la crisis económica</b></p>
<p>Lan-gatazkak oso handiak ziren. Errepublika aldarrikatu eta hilabetera, Ategorrietan greban zueden arrantzaleen manifestazioaren errepresioak, zortzi hildako eta zauritu ugariarekin, hala adierazten du.</p> <p>Arrantza-sektoreko ez gain, grebak egin ziren enpresa garrantzitsuetan, hala nola Gomistegiko Maderas Konpainian edo Buenavistako Loinaz bizikleta-fabrika nazionalan. Eta beste batzuk Herrerako Maderas Nicolás bezala itxi zuten.</p> <p>Langile langabetuen Sindikatuak idazkiak bidaltzen zizkion Udalari, obra publikoa sustatzeko eta enpresariei langabeak kontratatze gomendia egin zezan. Kontratazioak egiteko, Udalak langabetuen poltsa bat zuen, eta poltsa horretan lehentasuna zuten altzatarrek eta familiako gurasoek.</p> <p>Eskasia handia zegoen. Behartsuei laguntza emateko, Udalak bere gain hartzen zituen Sorospen Guneak laguntzeagatik sortutako gastu medikoak, baitafarmazian emandako sendagaiengatik ere. Ohikoa zen, halaber, premia larrian zeuden pertsonen sorospen-eskaerak aurkeztea, eta horiek Udalaren asteroko saioetan bideratzen ziren.</p> <p>Eskasia arintzeko elkartasun ekimenak egin ziren partikularrak zein kolektiboak.</p>	<p>La conflictividad laboral era muy alta. La represión de la manifestación de pescadores en huelga en Ategorrieta, con ocho muertos y numerosos heridos, al mes de haberse proclamado la República así lo atestigua.</p> <p>Además del sector pesquero, hubo huelgas también en empresas importantes como la Compañía de Maderas, en Gomistegi, o la fábrica nacional de bicicletas Loinaz, en Buenavista. Y otras cerraron como Maderas Nicolás, en Herrera.</p> <p>El Sindicato de Obreros Parados remitía escritos al Ayuntamiento para que promoviera obra pública y recomendara a los empresarios la contratación de parados. Para las contrataciones, el Ayuntamiento disponía de una bolsa de parados, en la que tenían prioridad los residentes altzataras y padres de familia.</p> <p>La precariedad era muy grande. La asistencia municipal a los pobres se hacía asumiendo los gastos médicos dispensados en el Cuarto de Socorro y los medicamentos servidos en la farmacia. También era habitual que las personas que se encontraban en extrema necesidad presentaran peticiones de socorro que eran atendidas en las sesiones semanales del Ayuntamiento. También se dieron iniciativas solidarias de particulares y colectivas.</p>
<p><b>4.2 Gatazka armatuak</b></p>	<p><b>4.2 Conflictos armados</b></p>
<p>Armen erabilera konstante bat izan zen Errepublika garaian. Horietako bik eragin zuzena izan zuten Altzan.</p> <p>1932ko abuztuaren 10ean Sanjurjo jeneralak estatu-kolpe saioa egiten saiatu zen. Udal-gehiengoak ez zuen gutxiengo errepublikarrek proposatutako "matxinatuentzako zigor eredugarria" eskatu. Ondorioz, gobernadore zibila zinegotzi hautetsiak baztertu zituen eta Juan Iriarte zinegotzi hautatua buru zuen ezkerreko batzorde kudeatzaile bat izendatu zuen. 1933ko azaroan ezkerreko porrotak zinegotzi hautetsi guztiak bere postuetara itzuli zituen.</p>	<p>El recurso a las armas fue una constante durante la República. Dos de ellos tuvieron una incidencia directa en Altza.</p> <p>Con motivo del fracasado golpe de estado del general Sanjurjo el 10 de agosto de 1932, la mayoría municipal no secundó la petición de "castigo ejemplar para los sublevados" propuesta por la minoría republicana. En consecuencia, el gobernador civil apartó a los concejales electos y designó una gestora de izquierdas presidida por el concejal electo, Juan Iriarte. La derrota electoral de la izquierda en noviembre de</p>

<p>Ezkerraren hauteskunde porrotak, gainera, erradikalizazio progresiboa eragin zuen, 1934ko urrian greba orokor iraultzaile batean amaituko dena. Herreran lehergai biltegi bat aurkituko dute eta San Markosen preso iraultzaile talde batek ihes egingo du. Herreran ere, borrokaldi armatu bat izan zen eta galdutako bala batek larri zauritu zuen Pablo Landa zinegotzi hautetsia, ohean zegoela. Bestalde, Guadalupen preso zegoen Juan Iriarte zinegotzi ezkertiarren familia premia larrian zegoen, eta Udalari laguntza eskatu behar izan zion, baita onartu ere. Gerra egoera 1935eko apirilera arte mantendu zen.</p>	<p>1933 devolverá a sus puestos a todos los concejales electos.</p> <p>La derrota electoral, además, provocará una radicalización progresiva que acabará en una huelga general revolucionaria en octubre de 1934. En Herrera localizarán un depósito de explosivos y en San Marcos se producirá la huida de un grupo de revolucionarios presos. También en Herrera, en un enfrentamiento armado una bala perdida hirió gravemente al concejal electo Pablo Landa cuando se encontraba en la cama. Por otra parte, la familia del concejal de izquierdas Juan Iriarte, preso en Guadalupe, se encontraba en situación de extrema necesidad teniendo que pedir el socorro del Ayuntamiento, al que este accedió. El estado de guerra se mantuvo hasta abril de 1935.</p>
<p><b>4.3 Laikotasuna eta erlijioaren arteko talka</b></p>	<p><b>4.3 Laicidad vs religión</b></p>
<p>Errepublikara garaian erlijioak eta laikotasunak aurrez aurre talka egin zuten, kasu batzuetan muturreko indarkeriaraino iritsiz, hala nola komentuen erreketak eta erlijiosoen fusilamenduak.</p> <p>Hori ez zen Altzako kasua izan; izan ere, Udalak, Konstituzioa betetz, modu ordenatu batez udaletxean, eskoletan eta hilerrian zeuden irudi erlijioso guztiak kendu zituen, ondoren San Martzial parrokiaren esku utziz.</p> <p>Ildo horretan, osoko bilkurak, adibidez, joera ezberdinetako biztanle-taldeek proposatutako plazan eta kaleen izenak onartzen zituen, eta, horrela, Herrerako plazarako San Luis izena onartzearekin batera, Herreratik igarotzen zen errepide generalaren zatia Errepublikaren Etorbidea izena ematen zion.</p> <p>1933ko maiatzaren 17an onartutako Kongregazioen Legearen antiklerikalismoak Elizak irakaskuntzan jarraitzea debekatu zuen, Herrerako La Salleko Eskolei zuzenean eraginez. Debekua ezin izan zen aplikatu maisuen faltagatik, eta anaiek eskolak ematen jarraitu ahal izan zuten, baina kaleko jantzita.</p> <p>Guraso Elkarteak omenaldia eskaini zien Herrerako plazan, legea aplikatu bezperan.</p>	<p>Durante la República la religión y el laicismo chocaron frontalmente, llegando en algunos casos hasta la violencia extrema, como la quema de conventos y el fusilamiento de religiosos.</p> <p>Este no fue el caso de Alza, donde el Ayuntamiento, cumpliendo con la Constitución, retiró de forma ordenada todas las imágenes religiosas presentes en la casa consistorial, en las escuelas y en el cementerio, depositándolas en la parroquia de San Marcial.</p> <p>En esa línea, el pleno aprobaba, por ejemplo, las denominaciones de plazas y calles propuestas por grupos de vecinos de distinto signo, y así, al tiempo que aprobaba el nombre de San Luis para la plaza de Herrera, daba el nombre de Avenida de la República al tramo de la carretera general que pasaba por Herrera.</p> <p>El anticlericalismo de la Ley de Congregaciones, aprobada el 17 de mayo de 1933, prohibió que la Iglesia continuase ejerciendo la enseñanza, afectando directamente a las Escuelas de La Salle, de Herrera. La prohibición no se pudo aplicar por la falta de maestros y los hermanos pudieron seguir dando clases, pero vestidos de paisano.</p> <p>La Asociación de Padres les dedicó un homenaje en la plaza de Herrera la víspera de la aplicación de la ley.</p>
<p><b>4.4 Autonomia Estatutua</b></p>	<p><b>4.4 Estatuto de Autonomía</b></p>
<p>Autonomia Estatutuaren gaia udalbatzaren barruan desadostasunetarako arrazoi bat izan zen. Lizarrako Estatutua, eskuinak eta EAJK babestua, atzera bota zuten Gorteetan 1931n.</p> <p>Proiektu berri bat 1933an bozkatu zen erreferendumean, oraingoan EAJren eta ezkertiarren babesarekin, Altzan aldeko botoen % 80,2 lortuz, baina tramitazio parlamentarioan geldituta geratu zen.</p> <p>1934ko irailean, gobernu zentralaren erabaki batzuek Kontzertu Ekonomikoaren aurka jo zuten eta euskal ogasunetako diru-sarrerak nabarmen murriztu zituzten. Horren ondorioz, udal-mugimendu handia sortu zen, eta udalbatzek batera dimisioa eman zuten. Udal altzatarra aho batez gehitu zitzaion erabaki horri.</p> <p>Gobernadoreak izendatutako batzorde kudeatzaile batek</p>	<p>La cuestión del Estatuto de Autonomía fue un motivo de división dentro de la corporación. El Estatuto de Estella, apoyado por la derecha y el PNV fue rechazado en las Cortes en 1931.</p> <p>Un nuevo proyecto fue votado en referendun en 1933, en esta ocasión con el apoyo del PNV y las izquierdas, logrando en Alza un 80,2% de votos favorables, pero quedó estancado en la tramitación parlamentaria.</p> <p>En septiembre de 1934, unas decisiones del gobierno central que atentaban contra el Concierto Económico y reducía de forma drástica los ingresos en las haciendas vascas, provocó un movimiento municipalista a gran escala y la dimisión en bloque de las corporaciones, a la que se sumó de forma unánime el Ayuntamiento altzatarra.</p>

<p>ordezkatu zuen korporazio hautetsia, 1936ko otsailean Fronte Popularrak hauteskundeak irabazi zituen arte.</p> <p>Bien bitartean, dimititutako zinegotziak 1935eko apirillean auzipetu eta inhabilitatuak izan ziren, eta aurrerago indultatuak.</p>	<p>Una gestora nombrada por el gobernador sustituyó a la de elección popular hasta la victoria electoral del Frente Popular en febrero de 1936.</p> <p>Entre tanto, la concejales dimitidos fueron procesados e inhabilitados en abril de 1935 y posteriormente indultados.</p>
<p><b>4.5 Uholdeak</b></p> <p>Klimatologiak ere arazo larriak eragin zituen.</p> <p>1933an, euri-jasek bi uholde handi eragin zituzten, bata ekainaren 16an, non hiru pertsona hil ziren Herreran harresi bat erorita, eta bestea, lau hilabete geroago, urriaren 23an.</p> <p>Kalteak ugariak eta larriak izan ziren, eta Udalak ezohiko aurrekontua onartu behar izan zuen.</p>	<p><b>4.5 Inundaciones</b></p> <p>También la climatología fue causa de graves problemas.</p> <p>En 1933 las lluvias torrenciales produjeron dos grandes inundaciones, una el 16 de junio, en la que fallecieron tres personas al desplomarse un muro en Herrera, y otra, cuatro meses después, el 23 de octubre.</p> <p>Los daños fueron numerosos y serios, obligando al Ayuntamiento a aprobar un presupuesto extraordinario.</p>
<p><b>5. Amaiera</b></p>	<p><b>5. El final</b></p>
<p><b>5.1 Amaieraren hasiera</b></p> <p>1936ko otsailean egin ziren hauteskunde orokorrak polarizatuta egon ziren Fronte Popularraren, Koalizio Kontrairaultzailearen eta EAJren inguruan. Azken horiek Altzako hauteskundeak irabazi zituzten, botoen % 50 eskuratuta; atzetik, Fronte Popularra ( % 35) eta eskuineko koalizioak ( % 15) geratu ziren.</p> <p>Horrela, herritarrek aukeratutako zinegotziak anmistizatu ondoren, 1936ko otsailaren 23an berriro birgaitu zituzten beren karguetarako.</p> <p>Udal-jardueraren normaltasunera itzultze hori, altxamendu frankistaren egunera arte mantenduko dena, ez zetorren bat gero eta handiagoa zen giro politiko asaldatuarekin, hala nola Intxaurren Azañari eskainitako plaka suntsitzea, San Luis eliza eta Mirakruzeko komentua jende armatuarekin babestea, edo apirileko eskuineko erakundeen bilera klandestinoak, EAJ barne zegoena, Gaiztarron egina, Fronte Popularraren aurka militarki antolatzeko, laster izango zenaren aurrerapen bat.</p>	<p><b>5.1 El principio del fin</b></p> <p>Las elecciones generales celebradas en febrero de 1936 estuvieron polarizadas en torno al Frente Popular, la Coalición Contrarrevolucionaria, y el PNV. Estos últimos ganaron las elecciones en Altza, con el 50% de los votos, seguidos por el Frente Popular, con el 35%, y la coalición de derechas, con el 15%.</p> <p>De este modo, los concejales de elección popular fueron amnistiados y de nuevo rehabilitados en sus cargos el 23 de febrero de 1936.</p> <p>Esa vuelta a la normalidad en la actividad municipal, que se va a mantener hasta el mismo día de la sublevación franquista, no se correspondía con el progresivo ambiente de crispación política general, apreciable en hechos como la destrucción de la placa dedicada a Azaña en Intxaurren, la protección con gente armada de la iglesia de San Luis y el convento de Miracruz, o la reunión clandestina de las organizaciones de derechas, incluido el PNV, celebrada en el palacio de Gaiztarro en abril, para organizarse militarmente contra el Frente Popular, un adelanto de lo que pronto iba a producirse.</p>
<p><b>5.2 Gerra</b></p>	<p><b>5.2 La guerra</b></p>
<p>Azken udal bilkura uztailaren 17an izango da, altxamendu militarren bezperan. Bertan, eskolen beharrei buruz hitz egiten da, Guardaplantako jaiei buruz, etxe berri batzuei ura nola hartu eztabaidatzen da, eta abar.</p> <p>Ayesta alkateak Herrerako La Salle ikastetxeko ikasleekin batera ikasturte amaierako sari-banaketan parte hartu eta gutxira izan zuen estatu-kolpearen berri.</p> <p>Une hartatik aurrera, Udalaren agintea Defentsa Batzordeak ordezkatu zuen, batez ere Fronte Popularraren kideek osatua.</p>	<p>La última sesión municipal se celebrará el 17 de julio, víspera de la sublevación militar. En ella se habla de las necesidades de las escuelas, de las fiestas de Guardaplanta, se discute sobre la acometida de agua a unas casas nuevas...</p> <p>El alcalde Ayesta tuvo conocimiento del golpe de estado poco después de haber participado junto con los alumnos del colegio La Salle de Herrera en la entrega de premios en celebración del fin de curso.</p> <p>A partir de aquel momento, la autoridad del Ayuntamiento fue reemplazada por la Junta de Defensa, compuesta principalmente por miembros del Frente Popular.</p>
<p><b>5.3 Bilbao</b></p>	<p><b>5.3 Bilbao</b></p>
<p>Juan Iriarte zinegotzi hautetsia Altzako 1. Konpainia Gorriko kide izango da, teniente gisa, eta euskal armadarekin borrokatuko du Santanderren preso hartu arte.</p>	<p>El concejal electo, Juan Iriarte, pasará a formar parte de la 1ª Compañía Roja de Altza, como teniente, y combatirá con el ejército vasco hasta caer preso en Santander, tras la rendición.</p>

<p>Bestalde, Ricardo Tejada zinegotzi hautetsia atxilotu egingo dute milizianoek bere etxean, eta Mirakruzeko komentuan atxilotuko dute, bere anaia eta aitarekin batera, Juan Bautista Tejada monarkikoa, Altzako azken alkatea Errepublikan aurretik. Ondoren, hainbat gorabehera pasa eta gero, Bilbora eramango dute, 1937ko urtarrilaren 4an espetxeetan izandako erasotik bizirik atera zen; aita, ordea, hilik.</p> <p>36ko irailean, matxinatuen aurrerapenaren aurrean, Jose Juanes, Pablo Landa eta Jose Manuel Beretarbide zinegotzi nazionalistak ebakuatuko dituzte. Bilbon bulego bat sortuko dute errefuxiatu altzatarrek artatzeko, eta bulego horrek zerbitzua emango du Bilbo matxinatuen eskuetan erori arte.</p> <p>Erretiratzean, Pablo Landa Gipuzkoa batailoi komunistako altzatar batzuek hilko dute Zallan.</p> <p>Iriarte, Landa, Beretarbide eta Juanes auzitegi militar frankistetan epaituko dituzte, matxinadari laguntzea, goraipatzea edo atxikitzea egotzita. Landaren kasua, hilda dagoenez, artxibatu egingo dute. Iriarteri 30 urteko kartzela zigorra ezarriko dioten, Juanesi 20 urtekoa eta Beretarbideri 6 urtekoa.</p>	<p>Por otra parte, el también concejal electo Ricardo Tejada será detenido por los milicianos en su casa y apresado en el convento de Miracruz junto a su hermano y su padre, el monárquico Juan Bautista Tejada, último alcalde de Alza anterior a la República. Posteriormente, tras varias vicisitudes, será trasladado a Bilbao, donde sobrevivió al trágico asalto a las cárceles que tuvo lugar el 4 de enero de 1937, mientras que su padre resultó muerto.</p> <p>En septiembre del 36, ante el inexorable avance de los sublevados, los concejales nacionalistas Juanes, Landa y Beretarbide serán evacuados. En Bilbao crearán una oficina para atender a las y los refugiados altzataras que prestará servicio hasta la caída de la capital vizcaína en manos de los sublevados.</p> <p>En la retirada, Landa morirá a manos de unos altzataras del batallón comunista Guipúzcoa con los que coincidió en Zalla.</p> <p>Iriarte, Landa, Beretarbide y Juanes serán juzgados en tribunales militares franquistas acusados de auxilio o exaltación a la rebelión. El caso de Landa, al estar muerto, será archivado. Iriarte será condenado a 30 años de cárcel, Juanes a 20 años, y Beretarbide a 6 años.</p>
<p><b>Aitortza</b></p>	<p><b>Reconocimiento</b></p>
<p>Donostiako Udalak eta Altzako herriak Altzako udalbatza hautetsiari (1931-1937) askatasunaren eta herritartasunaren bideetatik auzotarren onura komunaren alde egindako lana aitortzeko.</p> <p style="text-align: center;">***</p> <p style="text-align: center;">José Juanes Echeveste Celestino Atorrasagasti Casares Pedro Ayesta Cendoya José Casares Larrarte Pablo Landa Iribar Ricardo Tejada Duque de Estrada Felipe Zurutuza Urbistondo José Iruretagoyena Querejeta José Manuel Beretarbide Aristizabal Manuel Sasiain Astiasuainzarra Juan Iriarte Aguirre Gaspar Cardona Guarinos</p>	<p>El Ayuntamiento de Donostia y el pueblo altzatarra a la corporación electa de Alza (1931-1937) en reconocimiento a la labor desarrollada por los caminos de la libertad y la ciudadanía en pro del bien común de sus vecinas y vecinos.</p> <p style="text-align: center;">***</p> <p style="text-align: center;">José Juanes Echeveste Celestino Atorrasagasti Casares Pedro Ayesta Cendoya José Casares Larrarte Pablo Landa Iribar Ricardo Tejada Duque de Estrada Felipe Zurutuza Urbistondo José Iruretagoyena Querejeta José Manuel Beretarbide Aristizabal Manuel Sasiain Astiasuainzarra Juan Iriarte Aguirre Gaspar Cardona Guarinos</p>